

FRANCISCO FERRANDIZ ANTROPOLOGOA

Euskal Herrian bizi izan zen denboran hasi zen Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean Gerra Zibil espainoleko gorpuzkinak lurpetik ateratzeak maila ezberdinetan duen eragina aztertzen. Egun Madrileko CSIC erakundearen dihardu lanean, betiere lan ildo bera ardatz hartuta.

maider.eizmendi@gaur8.info

Antropologoa formazioz, azken urteetan Gerra Zibil espainoleko eta Frankismoko hobi komunitetan jarri du arreta. Kamera eta grabagailua alboan, fusilatuen gorpuzkinak topatzean senide eta herritarren artean sortzen diren erreakzio eta hitzak batzen ditu, besteak beste. Indarkeria modu bortitzean bizi izan duten beste leku batzuetan egin den moduan, memoria historikoa berreskuratzea oinarritzokoa dela uste du: «Hilobi arruntek ezin negon handia sortzen dute gizarteetan eta une batean edo bestean horri heldu egin behar zaio, nahiz eta traumatikoa izan».

Orain zazpi bat urte hasi zinen ikerketa lerro honekin, zerk erakarri zintuen?

Nik nire doktoretza tesia Venezuelako espiritu jabetze kulturen inguruan egin nuen, Maria Lionzaren kulturearen gainean hain zuzen ere. Egun lantzen dudak gaiarekin inolako harremanik ez duela dirudi, baina gorputzaren, memoriaren eta indarkeriaren arteko elkarlaguna ari nintzen aztertzen orduan ere. Gerra Zibileko gorputzak lurpetik ateratzeko lanetan ere hiru elementu horiek dute isla. Gorputzietan gorputzak, memoriak eta indarkeriak topatzen dira. Ezberdintasuna Venezuelako ikerketan jabetutako gorputzak zirela eta kasu honetan fusilatutako gorputzak direla da. Orain dela lau urte arte Getxon bizi nintzen, Deustuko Unibertsitatean egiten bainuen lan. Aranzadi Zientzia Elkarteko Francisco Etxeberriarekin harremanetan jarri eta hobi komunak aztertu eta zabaltzen hasi nintzen berarekin batera.

Zer egiten du antropologo sozial eta kultural batek gorputzak lurpetik ateratzean?

Auzitegiko antropologoak, batez ere, arlo teknikoekin arduratu

tzen dira: gorpuzkinak lurpetik behar bezala ateratzeaz, laborategiko azterketaz, identifikazio prozesuez... Eurek hobiaren barnean egiten dute lan; nik, aldiz, kanpoan. Niri gorputzak lurpetik ateratzeak arlo guztietan duen inpaktua aztertzea interesatzen zait. Arlo pertsonalean, aurkikuntzak pertsona baten biografian duen esanahia aztertzen dut; horrez gain, familia mailan duen eragina ere aztertzen dut. Familiak inoiz aipatu ez dituzten kontuen gainean eztabaidatzen dute, hitz egiten dute, gogoratu egiten dute... Maila lokalean ere eragina du. Herri batean gorputegi bat zabaltzen denean, asko hitz egiten da orain 70 urte gertatu ziren kon-

tuez eta une garrantzitsua da, sekretu publikoa zena ezagutza publiko bilakatzen baita. Herrietan jendeak badaki zer gertatu zen, nor zen nor, zer egin zioten nori... Belaunaldi zaharrenek bizitza guztia eman dute oroitzapen horiekin. Gorputzak lurpetik ateratzeko lanek maila autonomikoan, estatu mailan eta nazioartean ere eragina dute. Esaterako, azken boladan dagoen eztabaidaren harira "New York Times" egunkariak berak ere editoriala egin du.

Nire helburua, beraz, alor gorrietan guztietan izandako eragina aztertzea da. Gorputzak lurpetik atzeratzen direnean, adibidez, nire lana bertaratzen diren senideen testigantzak ja-

«Denbora kontra
dugu, azken 30
urteotan
informazio asko
hil da»



sotzea da. Kontatzeko dituzten istorioak batzen ditut. Entzuteko estruktura jartzen dugu horretarako. Bideo kamera bat dugu eta bertan jasotzen ditugu hitzak. Bitxia da, lehen egunetan jendea oso lotsati agertzen da; aldiz, pixkanaka hitz egiten hasten dira eta kasu batzuetan ilarak ere izan ditugu kamera aurrean. Jendeak publikoki hitz egiteko beharra du. Bere testigantza ekimen politikoa bilakatzeko da une horretan; urte askoan isilik izandako kontuez mintzatzeko gune legitimoa topatzen du azkenean. Doluak bizitzeko moduak jasotzen ere saiatzen gara, baita edozein motako ekintza politiko eta sozialak jasotzen ere.

Irakurri dizut gorputzak lurpetik ateratzeak funtzio terapeutikoa ere baduela.

Eragin terapeutikoa duela agerikoa da. Baina ez naiz auzia medikalizatzeari ari. Terapeutikoa dela esatean, lehen aipatu ditudan alor guztiez ari naiz; hau da, norbanakoez, familiez, herri mailako eraginez... Kontuan izan behar da, ordea, iskanbila handiak ere sortzen direla. Jende asko honen guztiaren kontra dago, beste memoria batzuk eztabaidan daude... Eragin terapeutikoa du, baina ezin da botika bat hartzearekin parekatu. Auzia konplexu da eta azterketa dimentsioa kontuan hartu behar da. Irekita dauden istorioak ixten dira.

Familientzat lasaigarria izan behar du, behintzat.

Lehenik eta behin zirrara handia eragiten du gorpua topatzeak. Denek ikasten dugu nolabait heriotzari aurre egiten eta gizarte guztiek dituzte heriotzari aurre egiteko errituak. Familia batean heriotza bat gertatzen denean bada eskura dagoen protokolo antzeko bat. Baina kasu hauetarako, 70 urte beranduago familiek hildako senideekin duten harremana kudeatzeko, hasieran behintzat ez zegoen inolako protokolorik. Argi dago senideei inpaktu handia eragiten diela gorpuzkinak aurkitzeak, baina prozesuak ixten doazen heinean eta euren aiten, anaien... gorpuak



berreskuratzen dituzten heinean, asko lasaitzen dira; ez bakarrik gorpua berreskuratzen dutelako, baita azkenean ahal duten guztia egin dutela sentitzen dutelako ere.

Familientzat bai, baina indarkerian murgilduta izandako gizarteentzat ere oinarrizkoa izango da memoria historikoa berreskuratzea, ezta?


Noski. Guk diziplina arteko proiektu batean egiten dugu lan: "Memorien politikak, harrakada baten balantzea". Ikerlari batzuk Argentinako edota Txileko kasuak ari dira aztertzen eta auzitegiko antropologoak, besteak beste, Perun, Kolonbian, Iraken, Bosnian... ari dira gorputegiak zabaltzen. Argi dago hilobi komunek ezinegon handia sortzen dutela gizarteetan eta une batean edo bestean horri heldu behar zaiola, nahiz eta traumatikoa izan. Ez da gauza bera berria den hilobi bat zabaltzea, Bosnian kasu, edota orain 70 urtekoa zabaltzea. Gure helburua bizi dugun kasua hobeto ulertzea da, eta, horretarako, beste leku batzuetako kasuak ere aztertu behar ditugu.

Kasu espainolari dagokionean, une honetan Trantsizioa bera ere ezbaian jarri da. Askorentzat eredu da eta zientzia politikoaren inguruko liburuetan ere jasotzen da. Orain, aldiz, batzuek alor positiboak izan zituela baina hau dena atzean utzi zela eta ateratzea beharrezkoa dela diote.

Garrantzitsua da indarkeria krudeltasunez bizi izan duten gizarteek indarkeriari aderez erantzutea. Hori denboran luzatzea gerta daiteke; Trantsizioan, hain zuzen, Frankismoaren trapu zikinen *luzamendu* antzeko bat egin zen. Orain, 30 urte beranduago, berriz ere agerian jarri da eta horrek argi erakusten du hau ezin dela tapatu, aurre egin behar zaiola.

Eta bat bestea zabaltzeko, alegia.

Ni ez naiz Trantsizioa erabateko hutsa izan zela esaten duen



«Herri batean gorputegi bat zabaltzen denean, asko hitz egiten da orain 70 urte gertatu ziren kontuez eta une garrantzitsua da, sekretu publikoa zena ezagutza publiko bilakatzen baita»



Pasa den udan Burgoseko Milagros herrian aritu ziren gorputzak lurpetik ateratzen. Orotara, 30 gorputz aurkitu zituzten. GAUR8

horietakoa, lasaitasunez aztertu behar dela uste dut. Baina Trantsizioa egin zutenek ere ezin dute esan bere espiritua hausten ari direla orain. Fase berri bat da hau, aktore sozial berriak daude, beste belaunaldi batzuk daude, beste kultura politiko bat. Ezin da eskatu guztiek orain 30 urte egin zena itsu-itsuan txalotzea; zalantzan jar daiteke. Hori ari da gertatzen bai hemen bai beste leku batzuetan ere.

Aspaldian politikoeekin bakarrik lotzen da memoria historikoaren eztabaida. Ahaztu egiten da mugimendu sozialak izan direla bultzatzaile nagusiak.

Bai, behetik gora egin duen mugimendua izan da hau, zalantzarik gabe. Zapateroren Gobernuak ez zuen Memoria Historikoaren Legea egin nahi zuelako egin. Nolabait gizartearen eskariari erantzun behar izan zion, baina ez zuen inolaz ere hori lortu. Horren aurrean

beste bide bat abiatu zuten elkartea eta senideek, bide judiziala. Baltasar Garzon epaileak arerio asko ditu alde guztietan, baina Pinochet kasuak izen handia eman zion nazioarte mailan giza-eskubideen alorrean eta horregatik jo zuten askok berarengana, aukera ikusi zutelako beren borroka nazioarte mailan islatzeko. Garzonek iskanbila eragin duen autoa egin zuen; bere ibilbide judiziala geldirik dago orain, baina ibilbide sinboliko handia izan du autoak, eta hortik datoz azken denboran ikusten ari garen manifestazioak.

Oso argi dago, hala ere, izan diren aurrerapen guztiak zerkusi handia dutela gizarteak eta senitartekoei egin duten presioarekin.

Epaitegietan akaso ez da lortuko, baina gizartean justiziaren kontzientzia maminzen ari da.

Nik uste dut baietz. Batik bat 2000. urtetik ematen ari den

IBILBIDEA

Oviedon jaio arren, Madrilen hazi zen. Bertan egin zituen

Gizarte eta Kultur Antropologiako ikasketak.

Ondoren, AEBetan, Mexikon eta Venezuelan bizi izan da besteak beste, betiere ikerketak lanak eginez. **Getxon** ere zazpi urteko egonaldia egin zuen Deustuko Unibertsitatean lan egiten zuen bitartean. Bertan zela hasi zen Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean Gerra Zibil espainoleko gorpuzkinak lurpetik ateratzen. Egun ikertzailea da **CSIC** erakundean.

azken mugimendu honek –izan ere, Gerra Zibil espainola amaitu zenetik atera izan dira gorpuzkinak lurpetik–, indar handia hartu du eta makina bat elkarre sortu dira. Nik ere ezin dut jakin zenbat dauden egun. Memoria historikoa berreskuratzeke eskaera handia dago, baina, aldi berean, kutsadura politiko handia dago. Mezua, eskaera, gizartean txertatzen joan da eta eskuinekoen artean ere esan izan da senitartekoei eskubidea dutela hildakoen gorpuak berreskuratzeke. Arzoa da ez dutela nahi gaia politikoki erabil dadin.

Senideen artean ere gero eta eskaera handiagoa dago senideak bilatzeko. Kontua da prozesu guztiak ez direla, nire ustez, egoki egiten ari. Estatuak edota gobernu autonomikoei ez dute prozesua babesten. Ez dago adituen batzorde zentralizaturik, ezta erkidego autonomikoetan ere. Batzorde horrek arduratu beharko luke gorpuzkinen berreskuratzea protokolo

guztiak jarraituz egin dadin, taldeak koordinatuz, datu baseak eratu... Hori existitzen ez denez, Katalunia eta Euskadin Aranzadi egin duena salbu, ez dago eskari guztiak jasotzen dituen estruktura bateraturik.

Bien bitartean, denborak aurrea egiten du.

Denbora kontrari dugu, bai. Informazio baliotsuena duen jendea hiltzen ari da. Egun egiten ari dena orain 30 urte egin izan balitz, askoz ere informazio gehiago eskuratzeko aukera izango genuen; informazio asko hil da. Denbora honetan Gerra Zibilaren testigu izandako asko hil dira. Erlojuaren kontra egiten da lan gaur egun.

Ikerketa egiten jarraitzea ezinbestekoa da.

Garrantzitsua da ikerketa akademiko eta zientifikoa egitea gaiaren inguruan, politikan gauden iskanbilez haratago joango den ikerketa. Iskanbila horiek krispazioa eta komunikabideen jarrera espasmodikoa eragiten dute. Beharrezkoa da honetan dihardugun erakundeek hausnarketa etengabea egitea, eztabaida gero eta sofistikatu izan dadin. Ikertzaileek erantzukizun sozial hori dugu, informatu eta dibulgatzea.

Komunikabideen jarrera aipatu duzu...

Komunikabideen kontua konplexua da. Alde batetik, alor honetan egiten ari den lana plazaratzen lagundu dute, baina, aldi berean, gai hauetan sentsazionalismoan erortzeko arriskua dago eta hori ari da gertatzen kasu batzuetan, inolako azalpenik eta testuingururik gabe ematen diren hezurduren irudiek adibidez. Hala, eztabaida handia dago *guk indarkeriaren pornografia* deitzen dugun horren inguruan. Non daude heriotzaren inguruan erakutsi daitekeenaren eta erakutsi ezin denaren arteko mugak? Salagarria da, halaber, gaiari eskuineko komunikabide batzuk ematen dioten trataera; burla egiteko baliatzen dute.